

Arrasate

P R E S S

1999ko
urriak 15
467. zenb.



Zarzuela gogoan

Ofiziale Elkarteen Gida

Elektrizitatea

- Aranzabal Koop. E.
Zerkaosteta, 15 ☎ 943 79 68 21 / 670 57 53 83
- Arrasate Elektrizitatea
Gipuzkoa etorbidea, 37 ☎ 943 79 65 93

Eraikuntza enpresak

- Berecibar
Santamaina, 34 ☎ 943 79 09 63

Errotulazioa

- Pando errotuloak
Gipuzkoa etorbidea, 6 (Legarre) ☎ 943 79 79 70

Igeltsaritza

- Izcue Irarzun
Munar, 6 ☎ 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Igeltsoak - Apaintzea

- Pako eskaiolak S.L.
Markulete, 14 ☎ 943 77 08 21

Iturgintza

- Aretxabaleta
Durana, 16 behe (Aretxabaleta) ☎ 943 79 17 53
- Egia iturgintza
Gipuzkoa etorbidea, 39 behe ☎ 943 77 01 85
- Txorrota
Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea ☎ 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Margoak

- Apain
Matiena, 3 - 1 ☎ 943 79 61 56 / 689 04 91 17
- JOVI
Ferrerias, 36 behe ☎ 943 79 12 87
- Serafin margoak
Ferrerias, 14 ☎ 943 79 94 00 / 639 41 50 73

Gida honetan azaldu nahi baldin baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora.

Iragarle berrien banda

Iragarpen eta asmakizunen gaineko solasaldi interesgarri batean nengoen lehengoan Juan Garmendia Larrañaga etnologoarekin eta berak kontatu zidan ondoko pasadizo hau. Behin, arabar herri batean, arduratuta zeuden baserritarrak aspalditik euririk egin gabe zegoelako. Herriko ordezkari bat aldameneko beste herrixka bateko konjurtzailearengana joan zen, mesedez araoa egin zezan, soloetako egarria pixka bat amatatzeko, osterantzean uzta guztia gal baitzitekeen. Aztiak, leihotik begiratu ondoren, irekitasun eta konfiantza osoarekin erantzun zien: "Yo si quieren les echo el conjuro, pero les aviso que hoy no está de llover" Behintzat,



JM Velez de Mendizabal

"Ireki gaurko egunkariak eta ikusiko duzue zenbat iragarle faltsu eta duingabe azaltzen diren"

egia aurretik ipini nahi izan zien, nekazariak engainatuta senti ez zitezen, nonbait.

Gure inguruan gero eta iragarle gehiago ditugu. Era guztietakoak. Batzuk politikako lur mugikorretan ausartzen dira, besteak sistema ekonomiko, teknologiko, sozial edo hezkuntzakoak aukeratzen dituzten bitartean. Gauza zera da, iragarpenak lau haizeetara

jaurtikitzea, gu hilkor inozoongan eraginik izango dutelakoan.

Konfidentzialitate faltsuan oinarritutako albisteak, oinarririk gabeko zurrumurruak eta errefusatu barik

nahita hedaturiko gezur gardenak: dena bide da zilegi. Eta guri, beste irtenbiderik ezean, mahai gainean ukabilkada bat ematea edo esne txar ozpindutik beste tragoxka bat egitea dagokigu.

Zer egin daiteke

sofista madarikatu horiei balazta jartzeko? Noiz arte egon beharko dugu pairatzen, komunikabide interesatuetatik bidaltzen zaigun hainbeste kaka zipriztin? Dena manipulatzeko da, oihalaren atzean ezkatututa geratzen den interes ilunaren zerbitzura. Eta armiarma sare erraldoi horretan preso ditugu, politikoko, enpresario, funtzionario, etxekoandre, langile, apaiz eta, oro har, sentsibilitate apur bat duten guztiak. Denak balio ei du. Helburua, errealitatea itxuraldatzea da. Inork eskatuko al die erantzukizunik? Bai, zera! Egin zezakeenak ezin du. Ba al da hori baino kontraesan handiagorik? Inteligentziak kamustua du ahotsa eta hitz egin nahi duenari proskritoaren maila eskaintzen zaio, hain zuzen ere, iragarle faltsuak babesten dituen medio bertsutik.

Ez naiz teorizatzen ari. Ireki, arren, gaurko egunkariak eta ikusiko duzue zenbat iragarle faltsu eta duingabe azaltzen zaizkizuen. Arabar konjurtzailearen ikasgaiak jabetzeko ezelako borondaterik gabe. Zertarako? ■

"Komunikabideen arloan proiektu interesgarriak ditugu buruan, bailara osoari begira"

Joseba Ezpeleta

5.420.996

pezeta irabaziko ditu Arrasateko alkateak aurtan

Guztira seihun eta berrogeita hamar mila pezeta gehiago udal liberatuek baino. Hori xe erabaki zuen Gobernu Batzordeak hirugarren bileran. Urruti geratzen dira Barakaldoko alkateak irabazten dituen 11 milioiak.

ITURRI ONETIK

Diruak Donostiara

Zenbat diru irteten da zerga bidez Deba Garaitik —Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Oñati... — Gipuzkoako hiri-burura eta zenbat diru itzultzen da, azpiegituretan esaterako, bueltan? Kezka hori darabil buruan Jesus Larrañagak azken aldi honetan.

Odon Elorza negar egiten du sarri Donostiak apenas jasotzen duela herri dirurik azpiegiturek lantzeko. Hala ere, hori diru Kursaal, Ilunbe, Garbera, Boulevard pasealekua, Paseo Berria, oinezkoentzako kaleak, saihesbideak... Easo ederra egunean jartzen.

Gure bailarak badiu hainbat ordezkari Gipuzkoako Batzar Nagusietan, baina orain arte behintzat, lan gutxi egin dute talde moduan, bailararen alde. Ez da gauzak aldatzen hasteko garaia?



ARRO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arriolabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakia:** Monika Bellastegi. **Kooperatzaileak:** Mikel Iturriz, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmela Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketaren arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontratatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta irizien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trutxuelo.



Arrasateko Udalerria laguntzaile



Gipuzkoako Foru Aldundia laguntzaile



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila laguntzaile

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 15**
 • Ruiz, Maalako Errabala
- Larunbata, 16**
 • Morales, San Andres
- Igandea, 17**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Astelehena, 18**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Asteartea, 19**
 • Korkuera, Musakola
- Asteazkena, 20**
 • Irizar, Erguin
- Osteguna, 21**
 • Amezua, Santa Marina

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualetoia 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
 • Fax zenbakia 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

ERTZAINZAREN JARRERA

Benetan lotsagarria eta lau haizetara oihu handi bat jaurtitzeko modukoa, orain dela bi aste eskas Ertzaintzak, herriko kaleak zeharkatuz, giro baketsuan, manifestari zihoan jendearekin izan zuen jarrera bortitza eta neurrigabea.

Ezin daiteke onar, ezta inolaz ere, honelako jarrera gogorrik, gogor salatu gabe. Zeren eta batzuek ez dute ikusi nahi bake prozesu garrantzitsu batean murgildurik gaudela eta horrelako jarrerekin segituz gero, dena arriskutan utziko luketela. Hori gertatuko balitz, benetan penagarria izango litzateke. Nire begiek hantxe ikusi zutena benetan negargarria izan zen. Momentu larriak bizi izan genituen kale erdian.

Beraz, beldur eta lotsa guztiak alde batera utziaz, aitortu beharko lukete pasatu egin zirela egun hartan. Barkamena ere eskatu beharko

Zuzenketak

Aurreko asteko Arrasate Pressen Arrasateko Udaleko hiru alkateordeek 4.779.502 pta kobratzen zituela adierazi genizuen. Baina Ino Galparsoro alkateordearen kasuan ez da horrela. Berak ez du erabateko dedikazioz lanegiten Udaletxean. Beraz, ez du soldata hori jasotzen.

lukete, han gertaturikoa ez dela berriro ere errepikatuko aginduz.

Izan ere, ez da gauza hobetik, norberaren huts eta akatsak noizean behin aitortzea baino.

Denok saiatu behar gara bake bidea urratzen eta tentsioak alde batera uzten.

Zeren eta, beste modu batean esanda, hau da benetan Euskal Herrian eraiki nahi

degun bake iraunkorra?

Eta azkenik, zer etorkizun eraiki nahi dugu, gure bihar-ko neska-mutikoentzat?

Beraz, umekeriak alde batera utzi eta jar gaitezen lanean Euskal Herri berria eraikitzen: Euskal Herri tolerantante, moderno eta era berean erronka berriei aurre egiteko gai dena.

Jose Ignazio Barrutiabengoa

2000ko Gida prestatzen



Onintza Lopez de Munain eta Oihana Basabe hasiak dira datorren urteko Gida prestatzen. Hemendik eta abendua bitartean Leintz Bailerako denda, taberna eta enpresak bisitatu dituzte, publizitatea biltzen.

Zure atera jotzen badute, ondo hartu. Eskerrik asko!

Telefono berriak

Arrasate Komunikabideak elkarteak telefono berriak ditu. Hauek dituzue zenbaki berriak:

- Arrasate Press 943 71 25 11
- ATB 943 71 23 93
- Administrazioa 943 71 23 90
- Publizitatea 943 71 23 91

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
 jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Soldadura ikastaroa, bigarrenkoz

Iaz langabezian zeuden emakumeentzat antolatu zen soldadura ikastaroak emaitza ezin hobekak ekarri zituen: ikastaroa egin zuten 15 emakumeetatik 14k aurkitu zuten lana. Hamabosgarrena ez zen aurkeztu. Horietatik, gainera, hamarrek lanean segitzen dute. Beraz, hasieran zuten beldurra, ez ote zituzten hartuko eta, ezerezean geratu zen, zorionez.

Hori ikusita, bada, eta langabezian dagoen jendearen artean gehienak emakumeak direla kontuan izanda, Arrasateko Udalak beste ikastaro bat antolatu du aurten. Helburuak ez dira aldatu: langabezian dauden emakume-

ei aukerak ematea lan merkatuan.

Iaz bezala, langabezian dauden 15 emakumek izango dute aukera sopeletera hartu eta soldaduraren sekretuak ikasteko, Zubillagako Olaburu industrialdean. 400 praktika ordu izango dituzte, soldatzeko hainbat teknika ikasteko.

Hil honen 20a arte izango dute izena emateko epea. Taldea osatu eta gero, berriz, azaroaren 2an hasiko da ikastaroa, datorren urteko martxo arte.

Dena espero bezala badao, ikastaroa amaitu eta gero, emakume gutxiago izango ditugu langabezian.

Zaborra arazo bihurtzen denean

Udaletxean kezkatuta dabilta aspaldian, Arrasatek erakusten duen itxura zikina dela eta.

Jendeak ez omen ditu errespetatzen zaborra ateratzeko egunak, orduak, ezta lekuak ere. Are gehiago, badago zabor poltsa kaleko zakarontzietan sartzen duenik eta baita kartoiak zaborrarekin batera botatzen duenik ere.

Horixe bera frogatu dute 10 egunean zehar zabortokiak kontrolatzen aritu ostean, bai udaltzainek eta baita udal zerbitzuetako langileek ere.

Egoera larria dela uste du udaleko zerbitzu batzordeak. Horrela segituz gero, pertsona horien izenak publiko egiteko aukera aztertzen ari dira.

Honetaz gain, bestela-

ko irtenbideak ere ari dira aztertzen. Adibidez, zaborra egunero jasotzea eta ez orain moduan, astean hiritan. Aurrekontuak zeresan handia du, baina, kasu honetan. Edukiontzia gehiago jarriz gero, argi dago aparkalekuak gutxituko direla; beraz, oraindik buelta nahikotxo eman beharoko diote gaiari.

Arrasatek 200 zabortoki inguru dauzka, guneka banatuta. Honela, Musakolan hasi eta kalerainoko gunean (Udalarako bideko auzoak barne), asteartetan, ostegunetan eta igandeetan jasotzen da zaborra. Kaltetik hasi eta San Andresein, berriz, astelehen, asteazken eta ostiralean. Ordua, guztientzat da bera, gaueko 21:00etatik, 22:00ak arte.

Orain, metalurgian ere emakumeak



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain buzoarekin.

Emakumeei zuzendutako soldadura ikastaroa antolatu da

Jantzi buzoa zuk ere

Soldadura teknikak ikasi eta enpresetan praktikatzeko atek zabalik dituzue.

Ikastaroaren iraupena:

Azaroaren 2tik martxoaren 31 arte. (400 ordu)

Ordutegia:

09:00 -13:00 (astelehen, astearte, asteazken, ostegun, ostirala)

Plaza mugatuak (15)

Izen ematea: urriaren 20a arte

Antolatzailea: Enplegu Zerbitzua

Laguntzailea: Emakume Saila



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■
Enplegu Zerbitzua ■

Konforme zaude zaborra jasotzeko moduaz?

Astean hirutan pasatzen da zaborren kamioia.



Maria Machio
(63 urte)
Etxekoandrea

Erguinen ondo konpon-tzen gara. Gustura gaude.



Angeles Gallastegi
(77 urte)
Erretiratua

Bai, nahikoa da. Etxe ondo-an daukagu eta gura dugune-an ateratzen dugu.



Mari Karmen Aranzabal
(69 urte)
Erretiratua

Konforme nago, familia txikia gara eta nahikoa dela uste dut nik.



Vicente Martin
(48 urte)
Langilea

Hainbat auzotan ez da nahi-koa. Musakola, esaterako, nahiko lagata dagoela esango nuke.



Jose Ramon Belastegi
(52 urte)
Langilea

Etxe ondoan daukagu. Edukiontziekin baino hobeto. Haiek arriskutsuak dira. Bete-ta egon arren, jendeak zabo-rra botatzen segitzen du eta.



Antonio Alonso
(49 urte)
Erretiratua

Ordua egokia da, baina egunak ez dira nahiko. Egu-nero jaso beharko litzateke zaborra.



Salvador Delgado
(59 urte)
Erretiratua

Batzuetan zaborra biltzen da, baina osterantzean nahikoa dela uste dut.



Juana Berrio-Otxoa
(76 urte)
Etxekoandrea

Nire ustez nahikoa da, orduak errespetatuz gero. Asko biltzen duzunean, beste kale batera jaitsi daiteke.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

GANBARA

Enmarkazioak Arte ederretako materiala
Laminak Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Entzun mundua biraka



Musika, herrien arimaren, arnasaren eta sentipenen adierazle.

MUNDUKO MUSIKA BILDUMA arnasa horiek guztiak dantzan pentagraman.

Erritmoak, musika maileguak, mestizajea eta egungo teknologia-ren ekarpena sustaiarekin bat eginda, iraupen luzeko 12 diskotan.

Urriaren 17tik aurrera ostegun eta igandeetan
EGUNKARIA + 550 pta. 22 lib.

Mundua ulertzeko...



Zure independentzial!

15 ostirala

■ ZINEA

American Pie, Alai zine-
man, 19:00etan eta 22:00etan.

16 larunbata

■ ZINEA

Inspector Gadget,
17:00etan eta *American Pie*,
19:30etan eta 22:00etan, Alai
zineman.

■ PALA TXAPELKETA

Deba Garaiko pala txape-
lketak hasiko da Musakola-
ko kiroldegian. Partidak goi-
zeko 09:00etatik 14:00ak arte
jokatuko dira. Deba Garaiko
txapelketarako puntuagarriak
izango dira.

■ MUSIKA GAZTETXEAN

Dthe Greart Mississipi
Blind Mike bakarlari iruñarra,
Lovercraft bilbotarrak eta *Mer-*
maid talde iruñarra arituko
dira Gaztetxean, 22:00etatik
aurrera.

■ KONTZERTUA JAM ARETOAN

Anti Nowhere Legae,
Serie Z taldeek kontzertua
eskainiko dute Bergarako Jam
aretoan. Emanaldia 22:00etan
hasiko da. Sarrera, 1.500 pta.

17 igandea

■ ZINEA

Inspector Gadget,
17:00etan eta *American Pie*,
19:30etan eta 22:00etan, Alai
zineman.

■ NAFARROA OINEZ

Debagunek antolatutako
autobusak goizeko 08:15ean
aterako dira Garibaiko gelto-
kitik. Bueltakoa 20:00etan.

■ ZARZUELA AMAIAN

El Caserio zarzuela lana
eskainiko dute *Itsaso* lirika tal-
deak eta *Donostiako Orkes-*
tra Sinfonikoak. Emanaldia
arratsaldeko 19:30ean izango
da, Amaia antzokian. Sarre-
ra: 2.500 pta. Aldez aurretik:
2.000 pta.

■ MENDI IBILALDIA

Aitor Aranaren omenez
III. mendi ibilaldia antolatu du,
Ibarra-Olaetara. Aramaioko
Orixol mendi elkartek. Auto-
busen irteera goizeko 07:30ean
izango da Aramaioko kirol-
degitik.

18 astelehena

■ ZINEA

American Pie, Alai zine-
man, 19:00etan eta 21:30ean.

19 asteartea

■ ZINEA

American Pie, Alai zine-
man, 17:00etan, 19:30etan eta
22:00etan.

21 osteguna

■ ZINEA

Gato Negro, gato blanco,
filma eskainiko dute Amaia
antzokian, 21:30ean. Sarrera:
450 pta.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

"Gazteak eta 2000
.urtea" argazki lehiaketan
parte hartu duten lanak
jarri dituzte ikusgai Monte-
rronen. Lanak urriaren 30a
arte egongo dira ikusgai.

■ SOLDADURA IKASTAROA

Emakume Sailak eta
Enplegu Zerbitzuek emaku-
meei zuzendutako soldadu-
ra ikastaroa antolatu dute.
Soldadura teknikak ikasi
eta enpresetan praktikak
egiteko aukera eskaintzen
du ikastaroak. Izen ematea
urriaren 20an amaituko da
eta eskolak azaroaren 2an
hasiko dira. Argibideak,
udaletxean.

■ ERAKUSKETA HARRESIN

Ramon Aranzabalek
Harresi aretoan dauzka
bere margolanak ikusgai,
urriaren 24a arte.

■ BARAZKIZALEEN SUKALDARITZA

Ekin emakume taldeak
antolatu du ikastaro hau.
Saioak urriaren 23 eta
30ean eta azaroaren 13 eta
20ean izango dira Ekin-en
egoitzan. Izen ematea
egoitzan bertan.

■ DANTZA IKASTAROA

Ekin emakume taldeak
dantza ikastaroa antolatu
du Garagartzako auzoetxe-
an. Izen ematea urriaren
18an amaituko da.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE


**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

Made in Arrasate



Mister España 99: Jorge Fernandez.



Ines Sainzek jarri zion xingola.



Paola Santoni irabazlea zoriontzen.



Jorge zoriontsu.



in familiak inguratuta.



Arrasateko lagunak hantxe izan ziren.



Eta bera bezainbeste poztu ziren.




Komunikabideen txanda etorri zen g



in baino zein guapoago.



Zorionak, Jorge.



Jatorra, ederra.

Dotoreziaren mister izendatu ostean, 99ko Mister Euskadi, Jorge Fernandez arrasatearra, Mister España 99 hautatu zuten.

USTEAK USTE

Bakeari harriak

Aberria askatzen ari zirelakoan, **A**triskantza beldurgarria egiteko zorian egon ziren ostegun goizean postetxeari su eman ziotenek, gasolina isurtzen ari zirenean hamalau bat langile ari baitziren bulegoetan lanean. Zorionez, ez zen ezer larrik gertatu.

Zenbait pintadatan besterik esan arren, kale borrokak ez dio batere mesederik egiten bakebidari: ez Arrasaten, ez beste inon. Kaltea, berriz, izugarria; bai Euskal Herria zulotik atera nahi dutenei, baita presoei ere, espetxetan ustel daitezen nahi dutenei aitzakia franko ematen dietelako.

Ez da nahikoa hauteskunde garaian kale borrokarik ez egotea. Jakin behar duenak ulertu behar du bizi dugun testuinguruan ere horrelako ekintzak guztiz gaitzesgarriak direla.

Ertzaintzak orain dela gutxi Arrasaten izan zuen jarrera salatzekoa izan zen moduan, postetxeok ere ez du besterik merezi. Halako batean ezker abertzaleak ere ulertu beharko du hori.

Joxe Aranzabal



Euskadiko Kutxa

* Juan Jose Arrieta

Euskadiko Kutxak 40 urte bete ditu irailean. Aldi berean, bezero aurreztaileek bere esku utzitako gordailuak bilioi bat pezetako kopuru sinbolikora heldu dira.

Zenbateko hori zinez zaila zen imajinatzen duela lau hamarkada, ilusioz beterik bezeroen gordailuetan lehen milioia lortu zuten aitzindariak; izan ere, baikorrenek ere noizbait 100 milioi pezetara heltzea baino ez zuten amesten.

Lan Kide Aurrezki hiru gabezia betetzeko sortu zen:

- Euren finkatzea eta garapena ahalbidetzeko.
- Gizarte Segurantzako sistema propioa antolatuzeko.
- Kooperatiben koordinazio eta aholkularitzarako.

Sortu eta bideratzeko aldiari, kooperatibek izugarizko ahalegina egin zuten Lan Kide Aurrezki finantza entitate gisa finkatzea lortzeko. Zeregin horretan beren baliabideen zati bat ere jarri zuten.

70 eta 80ko hamarkadetan entitatea finkatu ondoren, 90eko hamarkadan kreditu inbertsioak garapen handia izan zuen.

Gainera, Euskal Herriko sukurtsal sareak biztanleen %90engana heltzea ahalbidetu zuenean, inguru geografiko berrietara hedatzeko prozesuari ekin zitzaion eta, horrela, Errioxa, Burgos, Valladolid eta Palentzia ezarri zen. Dagoeneko 33 sukurtsal dira eremu horietan banatuta.

Bilakaera dinamikoa horren isla ditugu, besteak beste:

- 1984ko abenduan aurrezkiari 100.000 Mptara heldu izana.

“
Milurteari begira plan
estrategiko bat lantzen ari
gara, garapen lehiakorra
landuko duena
”

• 10 urte iragan baino lehen, 1994ko uztailean, 500.000 Mptara gainditu izana

• 5 urte bakarrik iragan ondoren, 1999ko uztailean, bilioia erdietsi izana

Kooperatibekiko harremanetan ere aldaketak dira:

• Entitatearen zereginak eboluzionatu egin du eta Korporazio Zentroaren esku utzi ditu enpresa jarduerari burriak sustatzeko eta horien aholkularitza eta kontrolaz arduratzeko lanak. Eredu berrian, Euskadiko Kutxa finantza bitartekaritza mugatzen da.

• Lehen finantza harremanak gurekin bakarrik bazituzten ere, kooperatibekiko arriskuak dibertsifikatzeko prozesu bat gertatu zen duela urte batzuk.

Horren ondorioz, kooperatibekiko zuen funtsezko zeregina, bere horretan jarraitu ez ezik, indartu egin da, eta korporazio taxuketan protagonismoa izaten jarraitzen dugu. Horrela, 1998an, esate baterako, 6.987 Mptara eman genizkion taldeari kooperatiben koordinazio, kontrol eta sustapen lanak egiteko.

Geroari begira, milurte berriaren lehen urratsetarako estrategia plan berri bat lantzen ari gara une honetan gidari gisa, gure aurrekoengandik jasotako lan-kidetzara eta lan sorrera eta komunitate aberas-tasunaren alorrean garapen lehiakorra aurrerikusi eta bultzatuz.

*Euskadiko Kutxako zuzendaria

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
 Tel.: 943 79 20 56

Ipek
Dendu

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tel/Faxa: 943 79 01 82

astea bi hitzetan

■ **Hiru Handiak**

Giro onak lagun zutela, eta asteburu luzea aprobetxatuz, 24 lagun abiatu ziren Hiru Handiak egitera AEDren eskutik. Mondragoetik irten eta lehenengo gaua Garaion igaro zuten, elkar ezagutzeko. Nepal eta Vietnami buruzko diaporamak ere ikusi zituzten. Hurrengo egunean, goiz jaiki eta Aizkorriara igo ziren. Gaua, Gatzagan pasatu zuten, Imanol Esnaolaren hitzaldia entzun ostean.

Bigarren igoera, Anboto-Urkiolarakoa izan zen. Egun hartan, Urkiolan bertan egin zuten lo. Ibilaldi honekin amaitzeko, Urkiolatik Gorbeara eta handik Muruara joan ziren.

■ **Bertso txapelketa**

Pena handiz mondragoentzat, baina azkenean Azpeitiko Oñatz bertsolari taldea izan da Gipuzkoako Herri Arteko Bertsolari Txapelketako irabazlea.

Pasa den ostiralean Arrasateko Alkartu elkartearen neurtu zituzten indarrak bigarren aldiz. Kasu honetan, Leintz taldea izan zen irabazle. Irailean Azpeitian jokatu zen txapelketan batutako puntuen arabera, aldiz, Oñatz taldea atera zen garai- le, 31 puntuko aldearekin.

Leintz taldetik, Aretxabaleako Saioa Arando eta Jon Sarasua eta Bergarako Ainhoa Agirrezaldegi aritu ziren. Antolatzaileak (AED, SUDC elkartearen

laguntzarekin) pozik daude ekitaldiarekin.

■ **Irrati lantegia**

Pasa den asteazkenean hasi zen Gazte Bulegoak antolatutako erredakzio eta esataritza ikastaroa. Aitziber Aranburuzabala irakasle dela, irratia eta inguru horretako misterioak ikasteko aukera eskaintzen da modu honetan. Eskolak asteazkene- ro dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte, Arrasate Irratian.

Oraingoz lau lagun hasi dira ikastaroa egiten, baina antolatzaileen esanetan, oraindik badago lekua beste pare batentzat ere. Beraz, nahi duenak, badu astia oraindik ere.

“ Ez, ez dut uste gazte gutxi dagoenik politika munduan; gainera, beste gauza bat esan nahi dut. Nire ustez, gaur egun gazteriak inoiz izan ez duen kontzientzia dauka, bai euskal herritarrek bezala bai gazteak bezala. Guk gaztaroan ez genuen halako kontzientziarik, izatearen kontzientziarik”.

XABIER ZUBIZARRETA

Gara,
1999.10.8



■ **Emakumea eta esklabutz**

Leida Okendo kubatarrek emakumea eta esklabutzari buruzko hitzaldia eman zuen pasa den ostegunean Monterronen. Ekin Emakume Taldeak antolatuta, XVI mendetik XIX mendera bitartean Kuban emakumeek pairatu duten esklabutzari buruz hitz egin zuen.

Plus Ultra taberna


Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea 1-0-4
Fonoa: 791844
Faxa: 792941

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 943 79 87 62

LASER DEPILAZIOA


Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak

AZKARRA, BEHIN BETIKOA, MINIK GABE

Kontsulta eta aurrekontua konpromisorik gabe.

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

PUB HAIZEA



MUK ikasturte berria



Xabier Zubizarreta, Inaxio Oliveri, Juan Jose Ibarretxe eta Jabier Retegi.

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburua, Roman Sudupe aldun nagusia, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea, Pello Salaburu EHuko errektorea eta Xabier Retegi egon ziren joan den asteko ostegunean MUREn ikasturtearen irekitze ofizialean.

Iaz 2.700 ikasle matrikulatu ziren hiru fakultateetan: 1.500 Arrasaten, 250 Oñatin eta ia 300 Eskoriatzan. Aurtun %25 gehiago izango dira.

Geroz eta gehiago dira unibertsitate ikasketak euskaraz egin nahi dituztenak. Kreditu guztien %60 euskaraz ere egin ahal izan dira. Unibertsitatearen aurrekontua ez da txantxa: 2.600 mila milioi-koa da eta.

RETEGI GAZTEA

Iraila ezker Mondragon Eskola Politeknikoak zuzendari

berria du: Xabier Retegi gaztea.

Xabier Retegik 34 urte ditu, ezkondata dago, hiru seme-alaba ditu eta Mondragon Unibertsitateko errektorearen semea da. Eskola Politeknikoan ikasi zuen: Ingeniaritza Teknikoa egin zuen, mekanika arloan. Ondoren Montrealera joan zen, Quebecera. Han lau urte eta erdi egin zituen. Ingeniaritza ikasketak sakondu zituen eta master bat egin, zientzia aplikatuetan.

Harrezkero, Eskolan egin du lan: sei urte irakasle moduan eta beste hiru Iraunkor saileko zuzendari gisa. Hilabete da Ignazio Lakuntzaren lekukoa hartu zuela eskolako zuzendaritzan. Buru-belarri ari da eskolaren geroa prestatzen, bera ere parte hartzen ari baita MU epe luzerako lantzen ari den planean. Asmo handiak dituzte, inolaz ere.

Ados Elgean



Enpresak onartu omen du ireki duen bidea handiegia dela.

Eolicas de Euskadi enpresa ados jarri da Elgeako Mendilerroan lurak dituzten abeltzainekin, lur hauek alokatzeko.

Pedro Lasagabaster abeltzainaren esanetan, Josu Jon Imaz Eusko Jaurilaritzako bozeramaleak jakinarazi die hitzarmena sinatu ezean, lurak desjabetuko dizkietela.

Hau ikusita, lurjabeek hitzarmena izenpetzea erabaki dute. Hala ere, zentrala egiteko lanak kontrolatuko dituzte, Gipuzkoako Jarrainen Batzordean parte hartuz aurrerantzean.

Batzorde honetan Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatiko udaletako ordezkari bana dago eta baita etxalde bakoitzeko jabe bat ere. Horiakin batera, bi teknikari ere izango dira. Bata, Pedro Lasagabaster, biologo lanak egiten, eta bestea Jabi Villar, artzaina denez gero.

Euren lana izango da agiriak eta gaiak aztertzea, eta batez ere, lanak eta egitasmoa aldatzeko proposamenak egitea, horrela erabakiz gero. Hamabostean

behin bilduko dira, Aretxabaletako udaletxean.

Batzordeak jaso du dagoeneko lehen kexua: Elgearaino igotzeko ireki den bidea lar handia dela.

BIDE ZABALEGIA

Gipuzkoako Batzordea haraino joan zen ostiralean, kexua egiaztatzerako. Hantxe izan ziren Oñatiko alkatea, Aretxabaletako ingurugiro zinegotzia, Iberdrolako ordezkariak eta Roberto Izaga Eolicas de Euskadi enpresako kudeatzailea.

Hauekin batera, Arabako eta Gipuzkoako bi biologo, teknikari bat eta lanak egiten ari diren enpresen buruak ere izan ziren.

Aretxabaletako ingurugiro zionegotziak adierazi zuenez, Eolicas de Euskadi enpresako ordezkariak onartu egin zuten eginikoa larregikoa izan dela eta kaltea konpontzen saiatuko direla.

Enpresa honetako ordezkariak, aldiz, ez zuten inolako adierazpenik egin nahi izan.

Dietetika eta Nutrizioa

Lorea Aramburu Dk.

- Medikuntzan eta Kirurgian Lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan Diplomatu.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan Diplomatu.

Tratatzen diren osasun arazoak:


- Kolesterola
- Azido urikoa
- Loditasuna
- Arteria hipertentsioa
- Diabetesa
- e. a...

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA
Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16

ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA • LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

GRUPO **RKUZ**


FAGOR 

ALTZARIAK




Araba Etorb. 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte, 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA

Su eman zioten postetxeari ostegunean



Hamalau langile ari ziren lanean eraso izan zenean.

Ostegun goizeko zortziak alde-
ra 8-9 lagun —inork ez zekien
esaten gazteak edo nagusiak
ziren, neskak edo mutilak—
Monterron aldetik Otalora
kalean dagoen postetxera abia-
tu ziren. Antza denez, mailu-
tzarrak, pikotxak agian, eta
bidoi bat gasolina zeramaten.

Zortziak eta bostean, pos-
tetxeko atzealdera joan eta
kristalak apurtzen hasi ziren
mailutzarrekin.

Momentu hartan hamalau
bat langile ari ziren lanean pos-
tetxean. Zuloak gutundegian
egiten hasi ziren, eskutitzak
banatzen diren tokian. Langi-
le batek pertsiara elektrikoa-

ri eragin zion, kristalak babes-
teko, baina erasotzaileek mai-
lu batzuekin geldiarazi zuten.

Zulo nahiko handia egin
zutenean, bidoia sartu eta gaso-
lina isuri zuten. Ondoren, pox-
polo bat piztu eta bota egin
zuten. Dena amen-jesus bate-
an gertatu zen. Postetxeak sua
hartu eta ketan bildu zen bere-
hala. Kea alboko eskailereta-
ra zabaldu zen eta, badaezpa-
da, goiko etxeetakoak kalera
atera behar izan zituzten. Kal-
te pertsonalik ez zen gertatu.
Artean publikoari zabaldu
barik zegoen bulegoa. Kalte
materialak, aldiz, zehaztu barik
zeuden lerro hauek idazteko

orduan. Eskutitzik eta, ez zen
erre, postetxeko arduradunek
adierazi zuten moduan.

Orain laupabost urte Zaru-
galdetik Otalorara etorri zene-

tik postetxeak pairatzen duen
lehen eraso izan zen atzokoa.
Zarugalden bost bat eraso izan
zituena, baina inoiz ez langile-
ak barruan zeudela.

Politikarien iritzia

• **Antonio Palacios (PP):** "ETA edo EHren ingurua egiten ari den presioaren ekintza bat gehiago da. Bide demokratikoekeko errespeto falta erakusten du. Udal ordezkariak azalpenak eman beharko lituzkete".

• **Jose Maria Urizar "Ametzu" (EA):** "Herri honetan bakea lortzeko harremanetan bagabiltza, mota honetako ekintzek kalteak besterik ez dituzte eragiten. Oso gaizki iruditzen zait".

• **Ismael Gonzalez (PSE-EE):** "Gaitzetsi egiten ditugu guztiz, era honetako ekintzak. Hau ez da bakea lortzeko biderik egokiena".

• **Joseba Ugalde (Ezker Batua):** "Gaitzetsi egiten ditugu horrelako ekintzak. Ez dago eskubiderik horretarako. Lizarra-Garaziko hitzarmenaren kontra doa guztiz. Bide politikoak jorratu behar dira".

• **Itsaso Garai (EAJ):** "Gaizki iruditzen zait. Uste nuen horrelako ekintzak historia zirela, baina badirudi ez dela horrela; eta ez bakarrik Arrasaten. Horrelako ekintzek ez dute laguntzen bakea lortzen".

• **Xabier Zubizarreta (EH):** "Gertakizun hauek Euskal Herriari bizi dugun prozesuan kokatu behar dira. Neurri batean, alderdi estatalistek prozesu honetan erakusten duten borondate falta izan daiteke ekintza hauen iturria. Lizarra-Garaziko alderdiei dagokigu hau gaingidzeko formula berriak bilatzea, Euskal Herriari behin betikoz irteera politikoa aurkitzeko".



GRONDO

Elektrizitatea

- Elektragaiak
- Instalazioak
- Automatismoak
- Proiektuak
- Argiztapena
- Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



JENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria.
9. zenbakia, 1999ko urria.
Komertzialak: Uxue Zabaleta eta Nerea Zallo.
Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trutxuelo. Tirada: 11.600 ale.

Berrigara

Arrasate
PRESS

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30				
Peugeot 406 Break TD 2.1-110				*7
Peugeot 306 Sedan Diesel				*5
Peugeot 205 D			AG, LD	*3
Peugeot 106 Long Beach 1.1				*5
Peugeot 106 Sketch 1.1			5 ate	*4
VW Golf GTI				*2
Fiat Uno Turbo				*2
Fiat Tipo 1.4				*2
Opel Astra TD			4 ate	*4
BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43				
Ford Focus 1.6 i	SS-BG	1999	LD, KE, IZ, Airbaga, Pintura metalizatua, 5.000 km.	*7
Ford Fiesta 125 XRI	SS-AZ	1997	LD, KE, IZ, LK, aleroia, AH	*5
Ford Escort 1.6 RS	SS-AJ	1990	EBD, Autoblock, Km. gutxi	*3
Ford Sierra Sport	BI-AZ	1989	LD, KE, IZ, AG, SE	*2
Fiat Tipo 16 AGT	SS-AK	1991	LD, KE, IZ	*2
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, AH, LK	*3
Renault Super 5 GTX	SS-AB	1988	KE, IZ, AH, LK	*1

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
 Tf. 943 76 13 84

 **IVECO**

Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA 

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!
 Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20

 **AGUSTIN**

Automobilaren
 karburazio eta
 elektronika 

Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58

SAN MARTIN
KARROZERIAK

Autoaren konponketa
 orokorrean

San Juan Auzoa:
 Barrutitxiki pabiloak, 1
 Tel.: 943 76 07 97
 Mugikorra: 608 77 11 83
 20570 BERGARA



AUTO DESGUACES
BERGARA

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA

Garajeko mandoen
 kopiak egiten
 ditugu! 

 **Txorno**
 Auto-errekantbioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
 943 76 29 95

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroën ZX 1.9 TD Volcane		1993	5 ate, LD, KE, IZ, AH	*5
Opel Astra TD Intercooler		1994	4 ate, LD, KE, IZ, SE	*5
Suzuki Vitara 1.6 i		1998	3 ate, LD, 12.000 km.	*6

MECA TAILERRAK. San Andres 8. Arrasate. Tf. 943 71 24 72

Megane Alicé 1.6	B 6853 TX	1998		*6
R-5 1.1 Five	BI 6209 BT	1993	3 ate	*3
Renault Express	BI 7304 BV	1994		*3
VW Golf Cabrio 1.6	SS 1118 AC	1988		*4
Opel Corsa City 1.0	SS 7100 AH	1990		*2
Ford Transit mistoa	VI 9802 N	1993		*3

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Ford Escort 1.6 i 16V	SS-AS	1994	AL, IK	*4
Opel Astra Caravan 1.6	BI-BV	1994	LD, KE, IZ, IK	*4
Fiat Tempra 1.9 TD	SS-AS	1994	LD, KE, IZ, IK	*3
Opel Vectra	Hainbat	1991-1999	Ugari	*3tik 8ra
Opel Omega 2.0 i	M-WL	1998	Ugari	*8

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko haguak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatuak **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte *5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *2: 300.000-500.000 PTA *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA *7: 2.000.000 PTatik aurrera
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

JASO GARAJEA



Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g. Tf. 943 79 99 61 • ARRASATE

ARRASATE KONPONKETAK

ad Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- LUKAS Autoinjekzio zerbitzua
- HONDA eta LADA autoen salmenta

Saldizpe kalea, 5 • Arrasate •
Tel.: 943 79 95 41

Larringar

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

ALMACENES LASCAR S.L.

Amillaga 32, BERGARA.
943 76 10 38 / 76 19 11.
Faxa 943 76 59 60.


REPSOL
Banatzaile ofiziala

Olio aldaketa
•
Errubera aldaketa
•
Auto garbiketa:
kanpotik eta barrutik
•
Errebisio orokorra:
frenoak, bujiak, korreak...

DESA/CRISTAL

IBILGAILUEN KRISTALDEGIA Tailer berria BERGARAN

- Auto, furgoi eta kamioiendako kristalen muntaia**
- Solar-check laminaren instalatzaile baimendua**



DESACRISTAL

Santalaitz 6, 5. pabilioia
Tf. 943 76 36 09.
Faxa: 943 76 73 45



35.000
IRAKURLE

Berrigara Arrasate

DENA **AUTO**

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Kontratazioa

Idoia Pozo

ARRASATE PRESS:
Otalora kalea 31
20500 Arrasate. Gipuzkoa
BERRIGARA:
Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara. Gipuzkoa

Telefonoak:
943 76 03 97
943 71 23 91
Faxak:
943 76 29 77
943 71 23 89

Deba Garaiko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako kotxeen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

1999ko eskaintza bereziak hauexek dira:
LERROA: 1.300 PTA
PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.

Zarzuela gure artean handi zenean



Jesus Guridi musikaria arrasatearren txaloak jasotzen.

Datorren urriaren 17an, Amaia Antzokian Jesus Guridiren El Caserio zarzuela taularatuko da, SUDC elkarteak antolatuta. Askorentzat harrigarria izango da

zarzuela bat ekartzea Mondragoera, baina honek badu bere arrazoia. 50. hamarkadara itzuli beharra dago horretarako. Zarzuela handia zen orduan herri hone-

tan. Artista bikainak aritu ziren zarzuelaren inguruan. Haietariko batzuk gurean izan dira orduko denborak gogoratzen eta kontatzen.

San Markos egunak zerikusi handia izan zuen gerraosteko Mondragoeren eta zarzuelaren arteko loturarekin.

1950. urteko apirilaren 24an, urtero moduan, bulegari-eguna ospatzen zen: San

Markos. Mondragoen fabrika ugari zegoen garai hartan: Zerrajera, adibidez. Bulegariak ere asko ziren, noski. Egun handia, zen, beraz, San Markos eguna. Urte hartan jaien egitarauen barnean zarzuela bat taularatzea erabaki zen.

Orain antzerkia egiten den

moduan, orduan, eta baita gerra aurrean ere, eskoletan (San Jose eskolan, adibidez —oraingo San Viatorren—) besteak beste, Busca de Sagastizabalen zarzuelak antzezten ziren.

La Marcha de Cadiz izeneko zarzuela izan zen taula-

ratzen lehena. Horren ostean, *La Banda de Trompetas* etorri zen.

ENGUIDANOS KONPAINIA

Zaletasuna bazegoen, beraz, Mondragoen. 1955. urtea erabakigarria izan zen, ordea. Orduan, Lope de Rueda antzer-



Simon Arregi eta Miren Arantzazu Villar agertokian.

ki taldea (hemen Compañía Enguñanos moduan ezaguna) Zaldibarko pilotalekura etorri zen. Azaroan negu gorria bizitzaren ari ziren. Abendua helitzean, Enguñanos taldeak estuasun handiak zituen: ikuslerik ez, karpa erori berria eta diruz ere larri. Gainera, eguraldi txarrak Mondragoen geldiarazi zituen.

Larritasun hartan taldeko kide bat, Enrique Soler, laguntza eske joan zitzaion On Jose Luis Iñarra parrokoari. Hau, berriz, Juan Arzamendiren etxera joan zen. Hauek, beste herritar batzuen laguntzarekin, musika ekitaldia antolatu zuten talde hari laguntzeko. Ondorioz, abeslari eta musikari taldetxo bat elkartu zen: zarzuelak lantzeari eta tau-

“sekulako gogoz ekin genion lanari, musutruk, gustoko genuelako, besterik barik”

laratzeari ekin zion, antzerki taldekoekin batera.

BAKARRIK LANEAN

Hurrengo urtean taldea joan egin zen eta mondragoetarrak bakarrik geratu. Zarzuelarekiko zaletasunak bizirik zirauen, hala ere. Beraz, beldur nahikotxorekin, baina bideari eustea erabaki zuten.



Guridi Gurean, El Caserío taularatu zenean.



El Caserión herriko dantza taldea.

“Orduko Mondragoe ez zen oraingoaren modukoa. Txikia zen, jendea ez zen kanpora irteten eta talde askotan parte hartzeko ohitura zegoen, abesbatzetan, adibidez. Inguuru horretako jendea elkartu ginen zarzuelagintzan eta sekulako gogoz ekin genion lanari, musutruk, gustoko genuelako, besterik barik”.

Fruitu ederrak eman zituen lan horrek, gainera. 1956an hasi eta 1960. urtea arte, zarzuelak bere lekua izan zuen Arrasaten. Handia, gainera. Gurea zinema agertoki nagusizat hartuz, sei zarzuela taularatu ziren urte horietan. Tartean, Jesus Guridiren *El Caserío*, maisuaren beraren aurre-

an. (*Ikus fotozaharra).

Azken zarzuela hau, gainera, Irunen eta Gasteizen ere antzeztu zuten arrasatearrek. Gasteizen, Jesus Guridiren omenez egin zen antzezpena eta, noski, Guridi bera ere hantxe izan zen.

Mondragoen taularatu zen azken zarzuela maisu berarena izan zen. Alfonso X Erregeak Arrasateri Hiri Gutuna eman zion VII urteurrenean *Mirentxu* lana taularatu zen. Gurea zineman izan zen, Guridi ikusleen artean zegoela. Haren esanetan, “hunkitu egiten nau ikusteak Mondragoe bezalako herri batek nire *Mirentxu* ezin hobeto antzeztu duela”.



Herriko ahotsik ederrenak aritu ziren zarzueletan.



ritu zen.



Taberera del Puerto lanean herritar ugari.



Enguñanos taldeko kideekin La Dolorosan.



Mirentxu zarzuelan hiru haur ere agertu ziren.

HERRITARRAK ARTISTA

Talde sendoa elkartu zen mugimendu honen inguruan. Hasieran bakan batzuk ziren, baina poliki-poliki jende gehiago batu zitzairen. Orohar, hauek izan ziren Mondragoeko zarzuela artistak: Jose Maria Mendizabal, Miren Aranazazu Villar "Maritxin", Simon Arregi, Jose Maria Lizaso, Eduardo Fernandez de Arin, Luis Orduñana, Jose Antonio Gonzalez, Jesus Barrutia, Amaia Gorroñogoitia, Juan Jose Axpe, Esteban Pagoaga, Juan eta David Arzamendi, Santotxa senar-emazteak, Fernando Aranburu, Patxi Nafarrate, Rafael Fernandez, Jon Belar. Jabier Etxebarria, Rafa-



ZARZUELAK

Urte horietan taularatu ziren zarzuelak dira:

■ ENGUÑANOS TALDEAREKIN

Zaldibar pilotalekuan eta San Juan etxebizitzaren plazan

- **La Dolorosa:** 1955eko abenduaren 9an.
- **Los Claveles:** 1955eko abenduaren 18an.
- **La del Manojito de Rosas:** 1955eko abenduaren 28an.
- **El Caserío:** 1956ko otsailaren 28an eta martxoaren 1, 2 eta 3an.

■ ARRASATEARRAK BERE KABUZ

Gurea zinematokian antzeztu ziren.

- **Katuska** (Soroazabal): 1956ko azaroaren 20an eta 21ean.
- **La Taberera del Puerto** (Soroazabal): 1957ko maiatzaren 4an.
- **Los Gavilanes** (Jacinto Guerrero): 1957ko abenduaren 16an.
- **El Caserío** (Jesus Guridi): 1958ko maiatzaren 7an. Irunen eta Gasteizen ere taularatu zen, Jesus Guridiri egindako omenaldian. Gasteizen, gainera, oso kritika ona jaso zuen antzezpenak.
- **Viento Sur** (Jesus Aranbarri): 1958ko abenduaren 19, 20 eta 21ean. Zarzuelaren idazleak berak zuzendu zuen Arrasateko taldea.
- **Mirentxu** (Jesus Guridi): 1960ko 11, 12 eta 13an. Jesus Guridiren aurrean.

el Amozarrain, Maria Jesus Vega, Jose Antonio Altuna, Felix Elorza, Konsuelo Azkoga, Sara Montalban, Konsuelo Azkargorta, Jose Antonio Agirre, Ana Maria Aias-tui, Miren Azkarate, Miren Sagasta, Luis Maidagan, Ana Maria Azkarate eta parrokiako abesbatza.

BESTELAKO ARTISTAK

Antzezleak beharrezkoak ziren, baina baita agertokiak prestatzeko artistak ere. Horretan aritu zen Anton Otadui "Etxetxu", Juanito Egidazu "Kurri" laguntzaile zuela. Dekoratu guztiak egin eta muntatzeaz gain, makiladore lanak ere egiten zituen "Etxetxuk". "Txerri koipea erabiltzen zuen gure aurpegiak makilatzeko. Gero hortxe ibiltzen ginen, zortzi egunean kendu ezinda". Jantziak, berriz, alokatu egiten zituzten. Euskal Herriko hiriburuetan ere taularatu ziren zarzuelak; hori dela eta, ez zen zaila arropa berezi hori alokatzen zuten dendak aurkitzea. "Gure arazorik handiena izaten zen jantziak tamaina bakarrekoak zirela. Jeneralean, handi edo txiki izaten genituen..."

Ubane Madera

Erreportaje hau egiteko Arrasate Pressen izan ziren: Juan eta David Arzamendi anaiak, Miren Aranazazu Villar "Maritxin", Patxi Nafarrate, Simon Arregi eta Eusebio Iñarra. SUDC taldeko Jesus Mari Arze ere izan genuen.



IZENAK

Kaitin Allende



Arkoko lankide ohia Euskadi Irratira joan zen lanera martxoan. Publizista moduan joan zen, baina abuztuan eta irailean esatari moduan aritu da. Baita Kilometroen inguruko programa berezian ere. Orain berriro ere publizista lanak egitera bueltatuko da, Euskadi Irratira. Ondo segi, bada, Kaitin!

Garagartzako Sanmigeletan Txarri Hanka errealzaleen taldea aurkeztu zen. Felix Gainzarain, taldeko lehendakariak darama elastikoa. Alboan Xabier Arruti du, bertsolaria eta taldearen ereserkiaren egilea. Dagoeneko 80 elastiko saldu dituzte auzoan. Jakingo balute, bisita-txo bat egitera azalduko lirateke Errealekoak.

HAU ZALETASUNA!



KANTUA:

*Gure elkarte honetan
Hasi gara indarka
Real zaleok gaude
Egiteko marka.
Gu beti bultzaka ta
Reala goraka
Leze Txikin sortu da
Peña "Txerrihanka".*



KARTA JOKOAN MAISU

Irailaren 26an Mus txapelketa jokatu zen Arima Zuri elkartearen. Luis Maria Ibarrondok eta Alberto Agirrek osatutako bikotea izan zen irabazlea. Hortxe harro-harro saria erakusten! Zorionak, bikote!!!



BAZKIDE BEREZIA

Musokolako Gazte Txokoak bazkide bitxi bat du: oiloa. Ez edonolakoa, alajaina! Baten ordeaz, bi ipurdi ditu! Hau ere Garagartzakoa, aizue. Arazorik ez omen die sortzen. Beraz, alde onetik begiratu gero, behintzat tripak ondo garbituta izango ditu...!



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua

Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Txikito Mallabia txapelketako irabazlea

IBAI BOLINAGA

“Titinen gantxoak gustatzen zaizkit”

— **Pozik zaude lortutakoarekin?**

— Bai, irabazteko asmotan joan nintzen. Izan ere, aurreko partida guztiak irabazi nituen eta.

— **Nola izan zen finala?**

— Hasieran piska bat zaila izan zen, baina bedertzina berdindu ostean, tantuak egiten hasi nintzen eta azkenean 18 eta 11 irabazi nuen.

— **Aurkari zaila izan zenuen?**

— Usansoloko Abasoloren aurka jokatu nuen finala. Hau ere, Berrizen izan zen, txapelketa han jokatu zen eta. Eta bai, piska bat zaila izan zen. Dena dela, ondo aritu nintzen, ziurtasunez.

— **Zein da zure maisua pilotan?**

— Titin. Bere gantxoak gustatzen zaizkit.

— **Finalean gantxorik egin zenuen?**

— Ez, ez zidan aukerarik eman.

— **Bigarren urtea duzu aurrebenjaminetan. Aurreko urtean ere txapelketaren bat irabazi zenuen, ezta?**


— Bai, Santamasetako bi txapelketak irabazi nituen.

— **Pilotari ona zara, gero?**

— Bai. hori uste dut behintzat.



ESKUBALOIA Aurkia eta ifrentzua



Arrasate-Almen eskubaloi taldeak galdu eta irabazi egin du aste-

buruan. Igandean Bergaran aritu zen Bernardo Balerdiren taldea. Ondo jokatu zuen, baina partidaren hasieran bergararrak aurreratu egin ziren eta mondragoetarrak ezin harrapaturik aritu ziren. Azkenean garaipena Bergaran gelditu zen: 23 eta 16.

Igandean, bestalde, Iturripen aritu ziren Arrasate-Almenekoak. Aurrez aurre Beasaingo taldea izan zuten eta oraingoan bai, irabazi egin zuten. Bernardo Balerdik adierazi zuenez, Bergaran baino okerrago jokatu zuten, baina, 20 eta 17 irabazi zuten. Txanponaren alde biak, beraz, aurkia eta ifrentzua.

Asteburu honetan Pasaian arituko dira, Donibane taldearen aurka.

Gaske mailakoek ere larunbatean jokatu dute. Denboraldia hasiko dute orduan. Aurrez aurre Almen taldea izango dute. Norgehiagoka igandean, Iturripen, eguerdiko 12:00etan.

SASKIBALOIA Etxean irabazi



Kenci-Arrasate saskibaloi taldeak ligako bigarren norgehiagoka jokatu zuen etxean eta irabazi. Talde gogorra zuten aurrez aurre Lander Errastiren mutilek, baina mendean hartu zuten. Lehen zatian nahiko berdinduta aritu ziren eta bigarrenaren 8 puntuz aurreratu ziren arrasatearrak; Loiola-Indautxu taldekoek ez zuten tartea txikitzerik izan. Azkenean, 81 eta 77 amaitu zen partida. Ken-

ci-Arrasatek denboraldiko lehen puntuak eskuratu zituen. Asteburu honetan Iturripen jokatu dute berriz, oraingoan Ordiziaren aurka. Partida 18:00etan hasiko da.

FUTBOLA Ozta-ozta



Mondrak ere irabazi egin zuen etxean, errejional mailan. Eibarko

Gaskeak taldearen aurka jokatu zuen. 1 eta 0 irabazi zieten Juanina Garairen mutilek eibartarrei.

Ez zen joko ikusgarririk ikusi Atxabalpen. Bigarren zatia biziagoa izan zen. Entrenatzaileek hainbat aldaketa egin zituzten. Ander Lasagak egin zuen gola. Eta hortik aurrera, partida ikusgarriagoa izan zen. Aste honetan Usurbilen arituko dira.

Beste taldeei dagokienez, garaipen asko izan ziren.

- Ohorezko gaske maila: Lengokoak 0-2 Mondra.
- Bigarren gaske maila: Arrasate 7-4 Aretxabaleta.
- Ohorezko haur maila: Arrasate 3-2 S. Tomas Lizeoa.
- Bigarren haur maila: Eibartarrak 0-3 Arrasate .
- Ohorezko infantil maila: Real Sociedad 9-0 Arrasate.
- Errejional maila, neskak: Urola 8-0 Mondra.

ASTE HONETAN:

- Ohorezko gaske maila: Mondra - Eibar.
- Bigarren gaske maila: Urki - Arrasate.
- Ohorezko haur maila: Hernani - Arrasate.
- Bigarren haur maila: Arraste - Eibartarrak.
- Ohorezko infantil maila: Arrasate - Real Union.
- Errejional maila, neskak: Mondra - Aurrera de Vitoria.

San Andres Xake taldearen liga hasiera

Bihar bertan hasiko dira ligan San Andres Xake Taldekoak. Iaz bosgarren izan ziren eta aurten bigarren denboraldia egingo dute errejional mailan.

Jokalariek adierazi duteenez, aurten "lehenengoak izan nahi dugu eta honela datorren urtean euskal liga jokatu. Dena dela, aurten zailagoa izango da. Izan ere, iaz bi talde jaitsi ziren maila honetara, Errenteriako Fomento Cultural eta Eibarkoa".

JOKALARI GEHIAGO

Luis Angel Ortega, Josu Tornay, Txema Hernado, Julio Prieto, Isidro Ruiz, Martín Arriaran eta Fernando Ortégak osatzen dute taldea. Aurten, ordea, beste bi xakelari gehiago daude taldean: Julio Prieto eta Fernando Ortega. Lasartekoak dira eta iaz



Larunbatean 16:00etan hasiko dute denboraldia San Andresen.

Fomento Cultural taldean aritu ziren.

Zazpi jokalaria izanda, mai-zago aldatuko dute laukotea denboraldian zehar.

DENBORALDI HASIERA

Larunbatean jokatuko dute denboraldiko lehen partida.

Luis Angel Ortega, Josu Tornay, Txema Hernando eta Ignacio Ruiz arituko dira Urnietako laukotearen aurka. Urnietako taldea aurten igo da maila honetara. Orain dela hiru urte jokatu zuten elkarren aurka azkenengo aldiz.

San Andres Xake taldea-

ren eta Urnietaren arteko partida arratsaldeko 16:00etan hasiko da, San Andreseko egoitzan.


HAMAHIRU TALDE

Gros A, B, C eta D taldeak, Andoaingo Leiza taldea, Errenteriako Beraun-Bera eta Fomento Cultural, Añorga Xake taldea, Urnieta, Donostiako Fortuna, Hondarribiko eta Marluxka arituko dira arrasatearrekin batera. Guztira, beraz, hamahiru taldek osatuko dute liga.

BESTEAK

Lehen eta bigarren mailetan ere izango du talderik San Andres Xake taldeak. Lehen mailan, San Andres B taldea, bigarren mailan San Andres C taldea eta hirugarren mailan, San Andres D taldea.

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

RAMON ARANZABAL (MARGOLARIA)

“Neure kabuz ikasi dut”

Arrasaten jaio zen duela 49 urte, eta gaur egun Bergaran bizi da. Orain lau urte ekin zion margotzeari, eta urriaren 8an ireki zuen bere bigarren erakusketa. Otsailean Bergaran jarri zituen jendaurrean bere margolanak. Urriaren 24a arte, berriz, Arrasateko Harresi aretoan izango ditugu.

— Zerk bultzatu zintuen margotzera?

— Etxebizitza bat eskuratu genuen, eta hormak betetze aldera, zerbitu egiteko eskatu zidan emazteak. Lehenengo margolanak orain bost bat urte egin nituen, baina arkatza besterik ez nuen erabiltzen. Koloreaz handik urtebetera hasi nintzen lanean. Ikastarorik ere ez dut sekula egin; neure kabuz ikasi dut margotzen.


— Gogoratzen dituzu hasierako margolanak?

— Hasieran marrazten nuenak ez du zerikusirik orain egiten dudanarekin, baina margolan haiek balore handia dute niretzat, asko maite ditut.

— Zer moduz Bergarako erakusketa?

— Margolanak erakutsi eta jendearen iritzia zein zen jakin nahi nuen. Jendearen harrera izugarri ona izan zen, eta 40 margolanetatik ia guztiak saldu nituen.

— Definitu zure lanak.



— Nire lanek kutsu abstraktoa dute, baina ez nago estilo jakin bati atxikita.

— Zein prozedura segitzen duzu margolan bat egiteko?

— Oinarritzko elementua pastela da. Laminaren gainean marrazten dut. Margo eskualdi batekin atzealdea definitu, eta gero geruza bakoitzaren ostean, kolorea finkatu behar da,

— Beste teknikarik ez duzu erabiltzen?

— Ez. Erakusketa honen ondoren, gogoeta egingo dut etorkizunaren gainean. Baina, seguraski teknika honekin segituko dut aurrerantzean ere.

“Nire lanak kutsu abstraktoa du”

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Garapen Lankidetzan profesionalak espezializatzeke diru laguntzak, soziologian, kazetaritzan, ekonomian eta zuzenbidean lizentziadunak direnentzat. Epea: urriak 21.

■ GAZTE IKASTAROAK

• Irrati lantegia: urriaren 6tik aurrera, asteazkenero, 18:00etatik 20:00ak arte. Matrikula 4.000 pta. 2.000 langabe eta ikasleentzat.

• Euskal dantzak: urriaren 8tik Santamasak arte. Ostiraletan, (19:00 - 20:30). Matrikula, 1.000 pta.

• Karibeko dantzak, sakontzeko: astelehen eta asteazkenetan (19:30 - 21:30). Matrikula: 4.000 pta. 2.000 ikasle eta langabeentzat.

• Jazz dantza eta gaur egungoa: larunbat arratsaldetan, Arrasate Musikalen. Matrikula, 5.000 pta. 3.000 ikasle eta langabeentzat.

• Argazkigintza ikastaroa, has-tapen maila: larunbatetan (10:30 - 13:30). ASA taldearekin elkar-lanean.

■ MENDI IKASTAROAK

• Mendiko Orientazio ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak. Zizurkilen izango da, urriaren 23an eta 24an eta 30tik 31ra.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Erguinen. Hiru logela, sukalde, komuna, egongela, berogailua eta gas naturala. Tel.: 943 79 85 33. Gauzez.

• Etxebizitza salgai Musakolan. 15 milioi. Tel.: 943 79 64 67.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen da Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

• Bi logelatako etxea alokagai, San Andresen. Tel.: 943 79 28 63.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle batek logela bat behar du, familia batean, mantenu osoan, astelehenetik ostiralera. Tel.: 944 60 97 69.

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 93 14 02 68.

• Etxebizitza behar dut alokatzeko, Arrasaten. Tel.: 606 06 96 75.

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

5. Etxeak osatzeko

• Bi neska euskaldun behar ditugu Deustuan (Madariaga kalea) etxebizitza osatzeko. 17.000 pta. Tel.: 943 79 58 22.

• Pertsona bat behar da Donostian etxebizitza osatzeko, Antigan. Tel.: 943 79 79 12.

• Bi neska behar ditugu Leioan, etxebizitza osatzeko. Tel.: 945 45 52 67.

• Mutil bat behar dugu etxebizitza osatzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. Iban. Lan orduetan.

GARAJEAK

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Altamiran dagoen 59 m²ko lokala

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskeraek
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskeraek
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

salgai. Tel.: 943 79 66 62.

tzen. Tel.: 943 77 10 20.

14. Errentan emateko

• Lanean diharduen negozioa (gozokidenda) alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.

• Erdialdean dagoen taberna alokatu edo eskuz aldatzeko prest gaudete. Tel.: 617 37 42 37.

• Gimnasio bat errentan jartzen da. Tel.: 943 77 07 06.

LANA

17. Eskaintza

• 23 urteko mutila lanerako prest. Informatikan ondo moldatzen naiz, erabilerari dagokionez. Tel.: 619 15 44 06. Fco. Jose Martinez.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Lanak, apunteak, era guztietako agiriak... ordenadorez pasatzen ditut. Tel.: 943 79 07 64 eta 619 15 44 06. Fran. 24 orduz.

• Emakumea lan egiteko prest arratsaldeetan, etxeko lanak, lokalen bat garbitu, edo pertsona nagusiak zain-

• Ospital laguntzaile diplomaduna prest zaharrak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. Tel.: 609 77 01 33.

• Neska prest garbiketa lanak egiteko, orduka. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel.: 600 60 05 31.

• 34 urteko emakume esperientziaduna jabetxean (jangelan) lan egiteko prest. Arrasaten edo ingurutan. Tel.: 943 77 10 25. Mezua utzi.

• Neska euskalduna prest denda saltzaile moduan lan egiteko. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 37 68.

• Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Interesatuok deitu 17:00etatik aurrera. Tel.: 943 75 22 74. Itziar

18. Eskeraek

• Zerbitzariak behar dira jabetxe batean lana egiteko. Tel.: 943 78 35 26.

• Neska euskalduna behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 943 76 60 16.

• Sukaldari esperientziaduna behar da prestatutako jakiak saltzen dituen tokian lan egiteko. Tel.: 943 77 06 12.

• Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, orduka lan eginez. Tel.: 943 79 16 09.

• Sukaldaria behar da jabetxe batean, arratsaldeetarako. Tel.: 943 77 00 78. 21:00etatik aurrera.

• Iturgintzan esperientzia duen pertsona bat behar da. Deitu lehenbailehen. Tel.: 943 77 01 19 edo 943 79 19 19.

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa behar da. Tel.: 943 71 50 92.

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar da, Deba Garaian lan egiteko. Deitu 607 42 84 79 telefonora.

• Neska bat behar da sukaldean lan egiteko. Titulu edo esperientziaduna. Kontratoa egiteko aukera. Tel.: 943 79 11 15.

• Pertsona bat behar da Web orriak programatzen dakiena. Lan zehatz bat egiteko. Tel.: 629 41 59 47.

• Pertsona bat behar da Aramaion, pertsona nagusiei gauzez laguntzeko. Tel.: 616 99 86 09.

• Bordatuak egiten esperientzia duen pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Neska bat behar da arratsalde denda batean lan egiteko. Euskaraz egitea ezinbestekoa da. Interesatuok bidali zuen datuak 259 posta kutxatilara.

• Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 17 97 eta 639 45 85 08.

• Pertsona bat behar da sukaldean lana egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Abokatua behar da, 35 urtetik behereakoa. Esperientzia ez da beharrezkoa. Curriculuma Arrasateko 54 postakutxatilara bidali.

• Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 10 22.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Pianoan lizentziadunak, pianoa erakusteko eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Tel.: 943 79 24 14.

• Ingelez eskolak ematen ditut. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Esperientziadun neskak OHoko eskola partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 77 17 20 eta 943 79 25 09. Ana.

• Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematen ditut, hutsetik hasita, maila guztiak. Tel.: 666 69 28 69. Jose Luis.

• OHoko eta DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

21. Eskeraek

• Pertsona bat behar da DBH 2. mailako eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 45 55. Jon.

• Euskara irakaslea behar da goi mailako eskolak emateko, astean behin edo birritan. Tel.: 943 76 26 57.

MOTORRA

23. Saldu

• Suzuki 50 cm³, 10.000 km. egina, gida baimenik barik ematekoa. Salgai Tel.: 943 79 82 06.

• 1998an erositako motorra salgai, 50 c.c., 200.000 pta. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45.

• Yamaha XT 350 salgai. Txurigorria. B-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

• Yamaha XJ 600. Egoera onean eta ITVa pasatuta. Merkea, bi maldak opari. Tel.: 943 79 26 35. Eguerdi eta gauean.

• Motor berri-berria salgai. Honda NTV 650, 11.000 kilometro, estra eta guzti Tel.: 943 79 20 40. 20:30etik aurrera.

DENETARIK

26. Saldu

• Arropa lehorgailua salgai, aire beroa eta guzti. Ez du instalaziorik behar. Tel.: 943 77 18 41.

• Lanean ari den negozioa eta furgoneta salgai. Interesatuok deitu 656 72 24 53 telefonora.

• Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuok deitu 943 79 19 63 telefonora.

• Kanadiar kanpin denda salgai, abanze eta guzti. Oso merke. Tel.: 943 79 23 69. Gauez.

• Auto gainean eramateko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69. Gauez.

• Piginu esku soinua salgai, 120 eta 58 botoiduna, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 70 28.

• Fagor markako izozkailu etzana salgai. 300 litro. 20.000 pta. Tel.: 943 79 58 79.

• Logela bat saldu nahi dut. Gereziozko egurra, 1,35eko ohea, armairu handia, bi mesilla eta komoda bat. Berri-berria dago eta itxura klasiko du. 60.000 pta. Tel.: 943 71 42 19.

• Esku soinua salgai, 96 bajuko. Egoera onean, oso prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 73 18.

• Salomon Evolution eskiak salgai. Egun batean erabilita. 205 neurrikoak. Fijazio eta guzti. Prezio onean. Tel.: 943 79 26 16. 13:00-13:30. Tel.: 943 79 68 31. Urtzi.

• Behin bakarrik erabilitako 39-40 zenbakiko Boreal mendiko botak salgai, handiak ditut eta. Onak, Gore tex. Kranpoiekin erabilgarriak. Tel.: 943 79 55 83.

27. Erosi

• Esku soinua erosi nahiko nuke. Piginu 100. Tel.: 943 79 53 36, arratsalde.

29. Eman

• Hilabete bateko artzan txakurra oparitzen dut. Tel.: 943 79 17 51.

31. Galdu

• Zubillaga eta Arrasate bitartean sabueso arrazako txakurra galdu dut. Hiru hilabete dauka, gorrixka kolorekoa eta lepokoak darama. Tel.: 943 79 11 36 eta 943 79 48 02.

33. Bestelakoak

• Jar zaitez sasoiari energia unitetsalaren bidez. Era guztiak gaitasunak, estresa eta behaldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 29.

EMAKUMEON TXOKOA

Soldadura ikastaroa

- Emakume langabeentzat.
- Soldadura teknikak ikasi eta praktikak enpresetan.
- Azaroaren 2tik martxoaren 31 arte, goizez (400 ordu).

BERRI GEHIAGO ETA IZEN EMATEA, UDALEKO ENPLEGU SAILEAN, EDO 943 79 09 00 TELEFONORA DEITUTA.

Komiki Ez Sexisten II. lehiaketako irabazleak

- Lehen saria "Geni@ kreatibo" leloa zuen komikiarentzat.

Egilea: Hiba Garai Zabaleta marrazkilaria, Oñatikoa eta Jose Ignacio Tellería Etxebarrieta giduigilea, Arrasatekoa.

- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna hobeto lantzen duenaren saria, "Helmuga" leloarekin aurkeztu zen komikiarentzat. Egilea: Aritz Fernandez Aranburuzabala.

- Emakume egilearentzat saria, "Cac@s silencios@s" leloa zuen komikiari, Vera Aldabe Gil donostiarentzat.

- Gazte saria, "El ratón" leloa zuen komikiarentzat. Egilea: Alex Ugalde Amurrio, Bergarakoa.

- Euskara saria, "Edonoz" leloarekin aurkeztutako komikiarentzat. Egilea: Unai Busturia Malet, Arrasatekoa.

EMAKUME SAILAK ALDIZKARIA ATERA DU LEHIAKETAN AURKEZTUTAKO KOMIKI LANEKIN. ESKURA DUZU GAZTE BULEGOAN, EDO 943 79 41 39 TELEFONORA DEITUTA.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

ATB

Programazioa

OSTIRALA, 15

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Guganda (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai.

LARUNBATA, 16

- 13:30 Mahai ingurua, Guganda, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 17

- 13:30 Mahai ingurua, Guganda, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 18

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Astebete (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Mondrasport.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

ASTARTEA, 19

- 13:30 Albiste aurrerapena.

- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Mondrasport (errepika).
- 19:25 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztuta.
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Hamaika Magazin:

- astrologia, sexualitatea, osasuna... Arantzazu Lagunillak eta Ubane Maderok aurkezturik.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

ASTEAZKENA, 20

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Hamaika Magazin (errepika).
- 20:00/20:30 Berriak.
- 21:00 Mahai ingurua: euskaldun berrien eta zaharren arteko harremana eta arazoak.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).

OSTEGUNA, 21

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Mahai ingurua (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Bertsolaritza: Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai.

OSTIRALA, 22

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:40 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Bertsolaritza. (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak..
- 21:30 Astebete.
- 22:00 Gatza eta Berakatza (errepika).
- 22:15 Soinuz Blai (errepika).

Gatza eta Berakatza



Aste honetan Bixente Pagoaga izango dugu sukalde tarte-an hizlari. Arientzako *Mitartegarai* jatetxeko sukaldariak bi astebetez erakutsiko dizkigu bere platerik gozoenak.

Datorren astean

NOIZ	PLATERA
Astelehena, 18	Atun mendreska piperrekin.
Astearte, 19	Baba beltzak.
Asteazkena, 20	Buztana.
Osteguna, 21	Txipiroiak.
Ostirala, 22	Piku tarta.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan Setatik Setara.

Tel.: 943 79 26 99


Sagardotegia

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 83
ARAMAIO

Lore Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50



**OKENDO
KIROLAK**

Zure denda... kirol denda ?





ste honetan
zarzuela
dugu hizpi-
de atal hone-
tan ere.

Argazki hau 1958. urtekoa da. Gurea zineman atera zen, zarzuelak taularatzeko agertoki bihurtu baitzen.

Argazkian Juan Arzamendi, Jesus Aranbarri eta David Arzamendi daude.

Egun hartan Jesus Aranbarriren *Viento Sur* izeneko lana antzeztu zen. Aranbarri maisua lan hau estreinatu ezinik ibili zen, harik eta, Jesus Guri-di musikagilearen gomendioz, Arrasatera etorri zen arte. Mondragoetarrek, baietz, pozez antzeztuko zutela. Horrela, abenduaren 19, 20 eta 21ean Gurea zineman taularatu zen.

Argazkia eta
berriematea:
Patxi Nafarrate.

TAKOLO AUTOAK
Araba etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Opel Astra diesel berria
2.0 DTI 16V. 100 zaldi

OPEL

Miren Garai

ESTETIKA ZENTRUA




LODITASUNA ETA BARIZEAK

- Zimurretako CO² lehenengo laserra (Barra-kodea)
- Ezpainen handitzea
- Liposukzioa edo lipoeskultura
- Bularren txikitzea eta handitzea
- Aurpegiko orbanak

Aguinaga Doktorea (1.806)

- Gorputzerako LIPOFIT TAC tratamenduak
- Indarberritze tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzaz eta beroaz
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiaren garbiketa
- Makilajea
- Solariuma

Zarugalde 23, 2. ezk. Tel: 943 79 96 90



Mugikorraz hitz egitea garesti?



Airtel Club-ekin,
12 pta/min.
15 orduz, egunero.

ALTA DOAN AIRTEL CLUB-EN SARTZEAN*

Telefonia mugikorrari beldurrik ez. Orain, Airtel Club-en Arratsaldez Planarekin telefono linko batera dei egin ahal izango duzu 17:00etatik 08:00etara 12 pta/min.-ko kostuarekin**. Baita asteburu osoan ere. Eta gogoan izan, Airtel Club da mezuak erantzungailuan doan jasotzeko aukera ematen dizun bakarra. Goiez Planari buruzko argibideak ere eska itzazu. Badakizu, hitz egin nahi baduzu, ez beldurrik izan. Eman izena Klubean.

**BEKANTZA HOHEK 999/1416 9910/1174 BITARTEAN EGINDAKO ALTERNATIBO BALIO DU. ZEHARKAKO ZERKAK EZ DAUDE BARRA. GEA EZARTZEKO KOSTUA 10 PTA. EMANIKO ZERBITZUAK BALDINTZA OROKORREN ARABERAKOAK DIRA.

Terminalen salneurriagatik ez kezkatu, argibidetarako:

AIRTEL ARRASATE
Maalako Errabala, 33
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 50 32



Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan



OMU
ZERAMIKAK

**Zeramika,
arte
unibertsala**



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 94379 07 20 • ARRASATE